

# KOSTU EGITURA

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik. Gure enpresa, balioan oinarritutako negozio-eredua izango da. Hau da, enpresaren interes handiena ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea (beren produktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz, marka, etab.). Gainera, pertsonalizazio-maila handia eskainiko dugu. Gure enpresak beste enpresen produktuz baliatzen da eta produktu horiek pertsonalizatzen ditu.

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat kostu kontuan hartu behar ditugu:

**Kostu finkoei** dagokionez, alokatuko dugun biltegia bio-produktuak gordetzeko kostu finko bat izango da, alokairuaren prezioa hilerok berdina izango delako. Aurkitu dugun biltegia gure produktuak gordetzeko, Zorrozaurren kokatuta dago, zehazki, *Calle Ribera De Deuston*. Hemen, alokatuko dugun biltegiaren informazio gehigarria agertzen da:

<https://www.fotocasa.es/local-comercial/bilbao/calle-ribera-de-deusto-148817521?RowGrid=1&tti=3&opi=300>



180 metro karratuko lokal bat da, beheko solairu bat da, eta 700 euro/hilabeteko ordaindu beharko dugu, orduan, esan dugunez, kostu finko bat izango da, alokairu bat delako.

Bertan ere, inprimatzeko makina bat egongo da, gure diseinua oihalezko poltsetan txertatzeko erabiliko duguna, beste oihalezko poltsatik desberdintzeko. Inprimatzeko makina hori, beste kostu finko bat izango da.



*surecolor sc-F2000.*

Argazkian agertzen den inprimagailua erabiliko dugu gure diseinua oihalezko poltsetan txertatzeko. 11.895 €-ko prezioa du inprimagailu bakoitzak, hasiera batean soilik bat erosiko dugu. Inprimagailuaren funtzionamendu egokirako, beharrezkoak dira hainbat material, adibidez, koloreko kartutxoak, hauek kostu aldakorren barruan sar dezakegu. Modelo: *Impresora digital textil epson*

Gure produktuak, interneten bidez, eta fisikoki alokairuko dugun lokal batean salduko dira. Interneten bidez, web orrialde bat egin dugu (Wix orrialdea erabiliz) dohain. Alokaturako dugun denda, Cruces (Barakaldon) dago, 36 metro karratu ditu, erakusleihu handi bat, kaletik produktuak ondo ikusteko, eta bezeroak erakartzeko, bainugela, eta trasteleku bat, non dendan eduki ezin ditugun materialak gordeko ditugu, eskura izateko. Alokaturako dugun lokal honen kostua, 300€/hilero izango da.

Gure enpresa izango duen beste kostu finko bat, langileen soldata izango dira. Bost langile gara, eta enpresa hasteko prozesuan dagoenez, ezin dugu ondo zehaztu zer nolako soldata izango duen bakoitza.

**Kostu aldakorrei** begira, hainbat enpresei produktuak eskatuko diogunez kostu aldakorrak desberdinak izango ditugu. **Monouso**, enpresa honek edalontziak eskainiko dizkigu eta kopuruaren arabera gehiago edo gutxiago ordainduko dugu. **Solubag** enpresarekin berdina gertatuko da, hau da, zenbat eta poltsa gehiago edo gutxiago erosi ordainduko duguna aldatuko da. Solubag enpresaren webgunean prezioa agertzen ez denez, kontaktuak jarri gara Txiletar enpresa honekin, baina ez digute argi zehaztu, zer nolako kostua duten poltsa hidrosolbagarriak. Oihalezko poltsak, **Grupo Billingham** enpresakoak izango dira, eskari kopurua desberdina denez hilabete guztietan, orduan eskatuko dugun kantitatea aldatuko da, hortaz, kostu aldakorrak dira.

A screenshot of a quote form on a website. The form is titled "INTRODUCE LA CANTIDAD" and has a dropdown menu set to "10000". Below it, there is a section "DONDE QUIERES LA ESTAMPACIÓN" with a dropdown menu set to "Lo quiero SIN estampación". At the bottom, there is a green button that says "ENVIAR ESTE PRESUPUESTO ¡AHORA!". On the right side, there is a summary of the quote: "0.49 €/Un", "Total: 4900.00 €", and "5929.00 € (IVA incluido)". There is also a note: "Cómpralo hoy y recíbelo entre el 7 Ene. y el 8 Ene." and "ENVÍO GRATIS A PARTIR DE 99€".

Argazkian ikusten denez, hilabete batean, adibidez, 10 000 unitateko eskaria egiten badugu, 4.900,00€-ko kostua izango dugu, baina gero eta poltsa honetako eskaria

handitzean, gero eta oihalezko poltsa gehiago eskatuko diegu **Grupo Billingham** enpresari.

Gure enpresaren funtsezko baliabide bat kanpoko enpresa baten esku utziko dugunez, pisu gehiago dugun arlo batean (diseinuan) arreta jartzeko, esan ahal dugu externalizazioa erabiliko dugula.

Eskala-ekonomikoari begira, **Monouso** enpresa eskaintzen dizkigu edalontziak, 0.9 euroko prezioarekin, eskatzerako orduan edalontzi gehiago eskatzen baditugu ez zaigu prezio handirik kostatuko. Hortaz, zenbat eta edalontzi gehiago eskatu prezioa txikiagoa izango da.

**Kostu zuzenei** dagokionez, ekoizpenarekin zuzenean lotuta daude. Esate baterako, erabilitako lehengaien kantitatea (gure kasuan, hornitzaileari erostearen kostuak), edo langile batek produktu batean zuzenean lan egin duen ordu-kopurua, adibidez, Yaizak erabiltzen dituen orduak diseinua egiteko, edo inprimatzerakoan zenbat ordu kopuru erabiltzen ditugu. Bestalde, inprimatzeko erabiltzen dugun materiala ere sar dezakegu sailkapen honen barruan.

**Zeharkako kostuak**, oro har ekoizpen-prozesuari eragiten diote. Gure enpresaren kasuan, lokalaren errenta (lehen aipatu dugun bezala, 300€/hilero), administrazio eta zuzendaritzako langileen soldata (Joseba eta Noeliaren soldata adibidez) edota finantza-kostuak.

**Gizarte-kostuak** dira, kanpo-eragin negatiboek eragindakoak (kutsadura, zarata), guk ekoizpen prozesuan parte gutxi hartzen dugunez (soilik diseinuan aritzen gara eta bitartekariak gara), ez dugu inolako kalteak eragiten. Gizarte kostuak, ere positiboak izan daitezke.

Kostuak behin sailkatuta, komeni da esatea, edozein enpresa sortzeko, hainbat izapide burokratiko zeharkatu beharko ditugula. Gure enpresaren kasuan, sozietate mugatu bat izatea erabaki dugu, ondorioz, sozietate mugatu bat sortzeak dakartzan kostuak azalduko ditugu zehazki, <https://www.blueindic.com/blog/pasos-y-costes-para-montar-una-sociedad-limitada/> webgunea oinarritzat hartuz, honako hauek dira bete beharreko izapideak eta bakoitzak dakartzan kostuak:

1. Izendapen sozialaren egiaztapen negatiboa lortzea:

- Prozesua Merkataritza-Erregistroko web-orriaren bidez egin daiteke eta 16 euroko kostuak ditu.
2. Finantza-erakunde batean gure enpresaren izeneko kontu bat ireki, enpresak izango duen Kapital Soziala ezarriz:
- Sozietate Mugatuaren kasuan, Kapital Sozialerako ekarpen minimoa 3000 eurokoa da.
3. Merkataritza-Erregistroarekiko Izapidea, Autonomo-Erregistroa, etab.
- Hurrengo izapideak PAE puntu batetik kudea ditzakegu.
  - Gure enpresaren kasuan, <http://portal.circe.es/> webgunea erabiliz, Barakaldon dauden PAE puntuak aurkitu ditugu, eta, INGURALDE izeneko aukeratu dugu.
  - Pauso honetan, Enpresaren Estatutuak ezarriko ditugu, Enpresaren helbidearen datuak eta IAE eta CNAE Epigrafeak egingo ditugun jarduerari buruz.
  - Prezioari dagokionez, ezin izan dugu aukeratu dugun PAE puntuaren prezioa eskuratu, baina <https://www.blueindic.com/blog/pasos-y-costes-para-montar-una-sociedad-limitada/> webgunearen arabera 100 eurokoa da normalean. Bestalde, Merkataritza-Erregistroarekin egindako izapideen kostuak 40 eurokoak izango dira.

Datos del PAE seleccionado: INGURALDE OAL

[Volver](#)

<b>Organismo:</b> DIPUTACIÓN FORAL DE VIZCAYA
<b>Dirección:</b> ALDAPA 3ª (Edificio central Inguralde) / 48901 / BARAKALDO / VIZCAYA
<b>Horario:</b> 09:00h. - 14:00h. (Invierno) / 09:00h. - 13:00h. (Verano)
<b>Tipo de PAE:</b> PAE Público
<b>Web:</b> <a href="http://www.inguralde.com">http://www.inguralde.com</a>
<b>Teléfono:</b> 944789406
<b>Correo electrónico:</b> <a href="mailto:jesus.lopez@inguralde.com">jesus.lopez@inguralde.com</a>

#### Trámites generados

Tramitación por año	Sociedad Responsabilidad Limitada	Empresario individual	Total
	ALTA	ALTA	ALTA
2018	1	7	8

4. Notarioaren aurreko enpresaren osaketaren eskrituraren sinadura:

- Sozietate mugatuaren osaketa PAE puntuaren bidez egiten bada, notariotza kostuak 70 euro ingurukoak izango dira.
  - Atal honetan, garrantzitsua da behin-behineko NIF-a eskatu ahal izango dugula azpimarratzea.
5. Enpresaren osaketa eta erregistroaren frogaketa.
  6. Finantza-erakundearekiko kontu korrontearen azkeneko erregistroa:
    - Behin jatorrizko Enpresa Osaketaren Eskritura eta behin betiko NIF-a duzula, jada zure finantza-erakundera itzul zaitezke sortutako enpresari esleitutako kontu korrontearen erregistroa bukatzeko.

Prozesua behin amaituta, esan dezakegu Sozietate Mugatu bat sortzeko, 230 euro beharko dugula beharrezkoak diren izapide guztiak betetzeko. Hasierako inbertsioari dagokionez, lehen aipaturako 230 euroak eta Sozietate Mugatu bat sortzeko beharrezkoak diren 3000 euroko Kapital Soziala kontuan hartuz. Gure enpresa aurrera egingo luke 3230 euroko hasierako kostuekin.